

LANAREN MEMORIA

JON ESNAOLA AGIRRE

LUUR

“Nestor Basterretxearen oroimenez”

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Sarira aurkeztzen dudan lan honek *LUUR* du izena. 2024 eta 2025 urteetan zehar konposatutako orkestra sinfonikoarentzako obra da. 76 interpreterentzat idatzitako eta hamar minutu inguruko iraupena duen pieza hau konposatu eta forma eman diot sei hilabetez gogor lan eginda.

Oraindik argitaratu gabea, *LUUR* 2025eko udako denboraldian estreinatuko du Euskadiko Gazte Orkestrak (EGO), Diego Martin-Etxeberriaren zuzendaritzapean. Bira horretan, *LUUR* Donostia, Bilbo eta Gasteizko auditorioetan entzungo da, eta bere musika Euskadiko beste bi hiri gehiagotara ere eramango da.

Lana 2025eko udan kaleratuko da, eta berariaz sortu da talde sinfoniko horrentzat. *LUUR*ek euskal folkloreak elementuak integratzen eta berrinterpretatzen ditu, ikuspegi abangoardista batetik. Bere helburua musika garaikidearen eta euskal folkloreak artean zubiak eraikitzea da, EGOk gazteak interpretazioaren bidez nahiz euskal publikoa berezkoa duten sonoritate hurbilduz, bi soinu-mundu horiek konbinatuz eta euskal folklorea ikuspegi abangoardista eta berriarekin eskainiz.

OBRARI BURUZ

LUUR obrak nire sorkuntzan inspirazio-iturri izan diren ideia nagusiak biltzen ditu, orkestra sinfonikorako lan honetan laburbiltzen direnak. Obra hau ia erritual bat da lurraren inguruan. Nolanahi ere, ez da zuzenean Lur planetaz ari, baizik eta zapaltzen, dantzatzen, lantzen eta suntsitzen dugun lurraz. Hori dela eta, lan honek sonoritate iluna eta goibela du. Horrez gain, naturaren defentsarako eta babeserako kantua eta deia da. Hori dela eta, obra honek oinarri ekologista handia du.

Bestalde, etnomusikologia eta organologia izan dira ikasketetan izan ditudan beste kezka musikal batzuk eta, beraz, inspirazio iturri handia konposizio berrietarako. Kulturarekin eta ohiturekin etengabeko harremana duten etnia eta instrumentu ezberdinak ezagutzea iturri agorrezina izan da soinua eta musika ulertzeko ikusmolde eta sonoritate berrietarako. Pentsamendu horretatik obra ugari sortu dira, hala nola [Ortzi](#) (Bilboko Banda Sinfonikoak estreinatua Bilboko Euskalduna Jauregian), [Adara](#) (Iberia Laukoteak estreinatua Madrilgo Zarzuela Antzokian), [Erro II](#), [Zeru Ametsetan](#), [Ahaide](#), eta [Batelarena](#), besteak beste.

Luur, *Lur* edo *Lurek*, era berean, gure hizkuntzarekin zerikusirik ez duen beste esanahi bat dauka, baina bai etnomusikologiarekin zerikusia duena. [Luur](#) Erdi Aroko instrumentu eskandinaviarra da, brontzez egina eta Danimarkan aurkitua batez ere. *Luur*-ek igortzen duen sonoritateak tronboiaren sonoritatearen antza du. Hori dela eta, lan honetan zehar, haize-metal sekzioak eta, zehazki, tronboiek jotzen dituzten dei etengabeak entzun ditzakegu.

Azkenik, eskultura da nire beste kezka artistiko bat. Sorkuntzako urte hauetan zehar, Euskal Herriko eskultoreekin lotutako lan ugari egin ditut, batez ere Jorge Oteiza, Nestor Basterretxea eta Eduardo Chillidarengan inspiratuta. Chillidaren *Idatzien* eta Jorge Oteizaren *Quousque tandem...!* Irakurketetatik obra asko sortu dira, besteak beste [Gravitaciones](#), [Euskal Ahaide Kosmogonikoak](#), [Luz Oscura](#) eta [Atauts](#).

Lur hitzarekin batera beste hitz bat agertu ohi da: *Ama*. [Ama Lur](#) Nestor Basterretxea eskultoreak 1968an Jorge Oteiza eskultorearen laguntzaz egindako dokumentala izan zen. Dokumental horrek euskal gizartearen eta kulturaren zati handi bat biltzen du, eta, bertan, [Argizagi-ederra](#), euskal kulturaren melodia folklorikoa eta antzeko doinuak ere entzun ahal ditugu. Zalantzarik gabe, melodia horren erreferentziak ere jaso ahal izango ditugu lan honetan, lanaren haria da melodia hori.

Hala, lan honetan zehar, melodia hori orkestrako soinu-masan ezkutatuta egon arren, bi aldiz agertzen da, oroitzapen folkloriko eta bukolikoetan biziberrituta. Lehena, txistulariak imitatuz, gure musikan hainbesteko presentzia dutenak, pandereta, danbolina eta ttun-ttuna imitatzen dituzten hainbat perkusio instrumentu erabiltzeaz gain. Oraingoan, orkestrako hiru txirulek imitatzen dute (cc. 95-111). Bigarren agerraldia bi oboetan da, *albokaren* instrumentua imitatuz melodia bera interpretatzen dute (cc. 134-152).

Bestalde, doinu horrek lotura estua du euskal kulturaren gurtza-objektu batekin, *argizaiolarekin*. Melodia objektu hori eskuetan eusten den bitartean abesten da. Objektu hori Nestor Basterretxeak irudikatzen du bere *Euskal Serie Kosmogonikoan*.

Nestor Basterretxea
Argizaiola, Euskal Serie Kosmogonikoan



Bestalde, dokumentalak emakume batek errezipitatutako poema bat jasotzen du ([min. 53:50](#)):

Ama Lur

Zur, zu, ur, ura, go, gu...

Go, gu, ur, uregi...

Irudi, Eridi, Eskutari...

Zu, Lur, Urtziri, Eskutari, Eskutari!

Aran, Anari, Ixil, ibil, Urbil...

Igo, igon...

Une

Huts, Hutsune...

Hutsune, Hutsune, Hutsune...

Poema hori, dokumentalean bezala, *Luur* obra sinfonikoan errezipitatzen da, hitz funtsezkoenak hartuz eta orkestran modu berean aurkeztuz, baina soinu masa handiagoarekin. Hau da, orkestra erdiak errezipitatzen du, entzulearengan zirrara handia eraginez.

Nire sorkuntzetan eragina izan duten ideien, konposatutako obren eta pentsamenduen bat-egite horiek guztiek osatzen, laburbiltzen eta ematen diote forma obra sinfoniko honi. Ikus daitekeenez, ikuspegi eta irakurketa anitz planteatzen ditu lan honek. Obra bat zenbat eta irekiagoa izan eta haren elementuak zenbat eta gehiago aztertu eta behatu, orduan eta ideia gehiago biltzen dira bertan, eta interpretazio gehiago iradokitzen ditu.

Horregatik guztiagatik, eta *LUUR* obrak eskultorearen obrarekin partekatzen dituen elkargune guztiengatik, lan honek Nestor Basterretxea eskultorearen figurari omenaldia izan nahi du.

HELBURUAK

Lan sinfoniko honen helburu nagusia, musika sorkuntza berri baten bidez, gure kultura eta ondarearen elementuak zabaltzea da. Hau da, euskal folklореko elementuak hartu, *Argizagi ederra* doinua kasu, eta eraldatuta itzuli konposizio berri batean. Helburua entzuleei gure musika itzultzea da, abangoardiako pentsamendu musikal batetik berrinterpretatua.

Nire sormen prozesuan ikuspegi bikoitza planteatzen dut: iraganera begiratzen dut, behatzen dut eta aurreko gizarte bateko elementuak lekualdatzen ditut etorkizunera proiektatzeko. Iragan musikala aztertzen dut, hau da, gure folklorea, gure instrumentuak, gure ohiturak eta dantzak. Euskal gizarteak duen material baliotsu hori jaso eta ikuspegi musikal berriak ematen dizkiot. Eraldatu egiten dut ikuspegi berri hori proposatzen duten artelan berriak sortzeko.

Folklorea gure ohituren kristalizazioa da, eraldatzen ez den zerbait eta bere jatorrian izan zen bezala denboran irauten duena. Hori dela eta, gure musikak denboran zehar irauteko modu bakarra etengabe berpizten saiatzea da: birplanteatzea, eraldatzea eta gure garaietara eguneratzea. Beharrezkoa da folklorea tradizio bihurtzea: tradizio aldakorra, etengabe aldatzen ari dena eta gure ingurunearekin elkarreraginean dagoena.

Nire ustez, ideia hori orkestra sinfonikoaren bidez zabaltzea benetan eraginkorra izan daiteke, izan ere, hainbeste interprete eta halako soinu-masa duen orkestra sinfoniko bat entzuteak sortzen duen inpaktua zuzena eta gorpuzduna da.



(Dokumentu honek entzuteko estekak eta informazio garrantzitsua ditu).